




EZ DUGU PAREKORIK

Doinua: Axuri beltza ona duk baina

Neurria: Kopla handia. Bi puntuko handia (ip) / Lauko handia (hg)



Aimar Karrika Iribarren
(1988 Auritz, Nafarroa)

- 1 Axuri* beltza ona da eta xuria ez da **hobea** ikastola da **batzutan** urdin **bestetan** gorri **ordea**
- 2 Kalakari naiz eta bihurri baina ez alfer ez **nagi** aldiz batzutan izan nahi nuke nire ahizpa **bezain** **argi**
- 3 Lagunak ditut Katixa Kerman Jokin Jone ta **Joana** baina ez dizut esango nor den nik **gehien** maite **dudana**
- 4 Ai frantseseko kurtso luzeetan diktaketen **egurrean** **hainbeste** min ez nuen sekula izan **eskumuturrean**
- 5 Astelehenetik ostiralera erritmoa nola **segi** aire hartzeetan* denbora gutxi eta kurtsotan **gehiegi**
- 6 Larunbatetan mugi naiteke lasaiki eta **libreki** ta igandetan etxeko lanik ez baldin badut **hobeki**
- 7 Gure giroa da **beroena** goxo eta **alaiena** ikastolako talde guztitan gure gela da **onena**



Axuri = arkume

Aire hartze = jolas-ordu

